



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 29a

51. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, espetxe berria eraikitzeko Nafarroako Gobernuak dituen arazoei eta ez-betetzeei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (3. or.).
- Jabeldura, lan-istripuei aurre egiteko ekintzei buruzkoa, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak egina (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Antsoaingo osasun-etxerako orubeari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (6. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen aintzat hartzen Nafarroan estatutua eraberritze-ko aukera, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Foruzaingoak pertsonak identifikatzeko erabiltzen dituen datu-baseei buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (7. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den Espainiako Gizarte Ikasketen Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmen-markoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egina (8. or.).
- Galdera, Tuterako Udalak ikastetxe publiko bateko lursailak hartzen dituen aparkaleku bat eraikitzeko asmoari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (8. or.).
- Galdera, Farmazialarien Elkargoak erregistroak sortzeari eta datuak jasotzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (9. or.).
- Galdera, Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoaren ingurumen eraginaren adierazpenari jarraikiz egin beharreko ingurumen zaintzako programari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Iruñeko autobus geltokiaren gaineko hitzarmenari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroan azken urteotan haur hezkuntzan izan diren aurrematrikulazio eta matrikulazio datuei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (12. or.).

- Galdera, Iruñeko zeruan aireko armadaren hegazkin batek egindako erakustaldiari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Aralarko erretaula Baluartera eramateari buruzkoa. Akats zuzenketa (13. or.).
- Galdera, “Erresuma baten aroa. Antso Handia eta bere leinua” izeneko erakustekari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, 2003, 2004 eta 2005ean erregistratutako patenteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Baluartearen sarrera nagusia ele bitan errotulatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Oteitzako ikastetxe publikoa handitzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, zabor mota bakoitzaren tratamendu berariazkoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, garun-perlesia sendatzeko fibrotomiaren teknika aplikatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Espezialitate Zentroko Oftalmologia Zerbitzuko itxaronzerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, itxaronzerrendak arintzearen Ubarmin klinikan kirofanoak egokitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Arginaritzen itxitako zaborteziaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Departamentuetan I+G+Ba enpresa sarean sustatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, larrialdiak abiarazteko Positron sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Nafarroako poliziari eta segurtasun publikoari buruzko foru lege proiektuak taxutzeko aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Alvaro de Marichalar jaunari Japoniara joateko emanen dion dirulaguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, espetxe berria eraikitzeko Nafarroako Gobernuak dituen arazoei eta ez-betetzeei buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak espetxe berria eraikitzeko Nafarroako Gobernuak dituen arazoei eta ez-betetzeei buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduren 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, espetxe berria eraikitzeko Nafarroako Gobernuak dituen arazoei eta ez-betetzeei buruzko jabeldura hau, Nafarroako Gobernuak lehendakariari zuzendua, hurrengo osoko bilkuran presaz tramita dadin eskatu du:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-tadeak bere kezka adierazten du Nafarroako Gobernuak onartutako konpromisoetan dagoen atzerapenarengatik eta espetxe berria eraikitzeko lursailak gobernu zentralaren esku jartzeko daukan arazoengatik.

Kezka horren ondorioz, gure ustez egokia da une honetan Nafarroako Parlamentuan eztabaida egitea, jabeldura baten bitartez, espetxe berria eraikitzeko Nafarroako Gobernuak dituen arazoei eta ez-betetzeei buruz.

Nafarroan espetxe berria eraikitzeari ekiteko presa larria dela-eta alderdi politiko guztiak –eta, noski, Nafarroako gizarte osoa– ados egon dira eta ados daude. Kontuan hartu behar da egungo espetxea, 1900ean eraikia, zaharkiturik dagoela,

ez soilik eraikuntzaren egoerarengatik, baizik eta, baita ere, Nafarroako XXI. mendeko gizarteak espetxeen arloan izan ditzakeen beharrei konponbidea emateko zuzkidura materialen aldetik ere.

Egia esan, premia hau argi eta garbi egon da aspaldiko urteetan, baina Alderdi Sozialista Espainiako Gobernura iritsi arte ez dira espetxe berria eraikitzeko oinarrizko zutabeak jarri.

Aznar jaunaren gobernuarekin sinatu zen asmoen protokoloa sekula ez zen gauzatu, eta foru gobernuak ere ez zuen inolako urratsik egin hura azken burura eramateko.

2005eko uztailaren 28an, Barne Ministerioak asmoen protokolo bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin Nafarroan beste espetxe bat eraiki eta finantzatzeko.

2005eko azaroaren 19an, Espainiako Gobernuak 2006-2009 aldirako espetxe-inbertsioen planean sartu zuen Iruñeko espetxe berria.

Gaur den egunean, beraz, gobernu zentralak egin beharrekoak egin ditu, agindutako konpromisoak bete ditu eta kontusaila prest dago. Nafarroako Gobernuaren arduradunek, ordea, oraindik ere ez dute bete Barne Ministerioarekin sinaturiko asmoen protokoloan onarturiko konpromisoetatik bakarra ere.

Ez dakigu zergatik, asmoen protokoloa sinatu zenetik 10 hilabete iragan direnean, Nafarroako Gobernuak ez dion Nafarroako Parlamentuari lan-kidetza hitzarmena aurkeztu, ezagutu eta berrets dezan.

Halaber, ez dakigu zer nolako arazoak daukan Nafarroako Gobernuak gobernu zentralaren esku jartzeko espetxea eraikitzeko behar diren lursailak eta hartutako konpromisoak betetzeko aurreikuspena eta plangintza.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura hau aurkeztu dio Gobernuako lehendakariari, ondoako azal ditzan:

Zein diren Nafarroako Gobernuaren politika eta jarduketak espetxe berria eraikitzeako asmoen

protokoloan hartutako konpromisoa gauzatzeko –2005eko uztailaren 28an sinatu zen protokoloa–.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Jabeldura, lan-istripuei aurre egiteko ekintzei buruzkoa.

NAFARROAKO EZKER BATUA-IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak lan-istripuei aurre egiteko ekintzei aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 180. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Hamar urte bete dira Laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legeak indarra hartu zuenetik. Eta egia bada ere prebentzioaren kultura lantokietan ezartzeko bidean eta laneko arriskuen aurkako ekintzetan aurrerapausoak eman direla, argi dago, era berean, inolaz ere ezin dugula esan emaitza onak lortu direnik.

Azken hamar urte hauetan, Espainian zortzi milioi langilek baino gehiagok lan istripuren bat izan dute beren lanaldian, eta 10.500 langile inguru hil dira egoera horretan. Europako buruan gaude lan istripuetan.

Eta Nafarroan, 1999tik izan diren aurrerapenak gorabehera, 125.000 langile inguruk izan dute lan istripuren bat, eta horietatik 180 hil dira.

2005ean, Nafarroan 30 langile hil dira lanarekin loturiko arrazoiak direla medio (16 in itinere); horrek esan nahi du % 75eko igoera gertatu dela

2004ko 19 heriotzekin (11 in itinere) alderatuz gero.

Zenbateko horiek argi erakusten dute ez dela nahikoa lan istripuen aurka orain arte egin dena. Badirudi argi dagoela ekintza batzuk indartu egin behar direla, eta beste batzuk ere abiarazi behar direla. Honako neurriak eta ekintzak, esate baterako:

– Nafarroako Foru Komunitatean teknikariak gaitzea ikuskapen lan osagarriak egin ditzaten, 689/2005 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz (Nafarroan 10 inspektore eta inspektoreorde inguru dauzkagu).

Ekainaren 10eko 689/2005 Errege Dekretuak gaitasuna ematen die autonomia erkidegoei teknikari baimenduak gaitzeko ikuskapen lan osagarrietan ari daitezen. Beste autonomia erkidego batzuek sendo bultzatu dute bide hori, baina badirudi Nafarroako Gobernuak, momentuz, alde batera utzi duela aukera hori eta ez duela inongo foru dekreturik onetsi neurri hori aplikatzeko.

Kataluniak urtarrilaren 31ko 12/2006 Dekretua onetsia du, zeinaren bidez arautzen baitira Kataluniako Generalitateko langile teknikoek enpresetan eta lantokietan segurtasun eta osasun baldintzak egiaztatzeako eginkizunetan aritu ahal izateko izan dituzten gaikuntza-baldintzak eta -prozedura.

– Enpresen eta sindikatuen parte-hartzearekin, mugikortasun plan bat diseinatzea, industrialdeetara garraio publikoarekin iristea bideratzeko.

– Erakundeen arteko akordio bat bultzatzea, justizia administrazioaren, lan eta gizarte segurantzako administrazioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean, eta eragile ekonomiko eta sozialekin, arlo honetan ardura eta eskumenak dauzkaten alde guztiak koordinatzeko.

Jakin beharra dago ea Nafarroako Gobernuak jarduketa horiek edo beste batzuk gauzatzea beharrezkotzat jotzen duen, edo haren ustez orain arte egin dena nahikoa ote den.

Hori dela eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuak Nafarroako Gobernuari

galdetzen dio ea ekintza berriak abiarazi behar ote dituen lan istripuei aurre egiteko, eta, kasua bada, zein diren exekutatu beharreko politika berriak.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 18an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

F saila:
GALDERAK

Galdera, Antsoaingo osasun-etxerako orubeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Antsoaingo osasun-etxerako orubeari buruz foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu dio Toki Administrazioako kontseilari Alberto Catalán jaunari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Urteak igaro diren arren, zer arrazoi gaindiezin direla eta ez da oraindik kendu Antsoaingo Osasun-etxea eraikiko den orubea zeharkatzen duen kolektorea?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen aintzat hartzen Nafarroan estatutua eraberritzeko aukera.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen aintzat hartzen Nafarroan estatutua eraberritzeko aukera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Félix

Taberna Monzonek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Autonomia erkidegoek aurrera egin dute garai hauetan autogobernuan, erreforma proiektuen bitartez. Kataluniaren eta Andaluziaren adibideak aurreratuena dira. Hala eta guztiz ere, ia guztiek beren estatutuak berrikusten ari dira, autogobernu maila handiagoa erdiesteko. Bi baino ez dira erreforma-sistema gerarazi dutenak: Madril eta Nafarroa.

Hori dela-eta, galdera honi erantzutea nahi dut:

Zergatik ez du Nafarroako Gobernuak egokitzat jotzen Nafarroan estatutua aldatzea?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, Foruzaingoak pertsonak identifikatzeko erabiltzen dituen datu-baseei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Foruzaingoak pertsonak identifikatzeko erabiltzen dituen datu-baseei buruz foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioak:

Joan den apirilaren 11n Volkswageneko langileek eginiko elkarretaratzearen ondoren –bertan, istilu batzuk izan ziren Legebiltzarren aurrean–, Foruzaingoak bi langile atxilotu zituen etxean eta Belosoko kuartelera eraman zituen. Identifikazio prozesuan eta deklarazioa hartzerakoan, atxilotuen abokatuak bertan zirela, diligentziak egiten ari ziren foruzainek atxilotuetako bati 1972ko aurrekari polizialak aipatu zizkieten. Hori dela-eta, ahoz erantzuteko ondoko galdera aurkeztu dugu:

Nola daiteke Foruzaingoaren Belosoko kuartellean atxilotuta dagoen pertsona baten identifikazio eta datuen egiaztatze prozesuan agenteek 1972ko datu polizialak aipatzea? Besteak beste, artxibo horietatik ezabaturik egon beharko lukete, estatuak 1977an emaniko amnistia orokorraren ondorioz. Zein datu-base erabiltzen ditu Foruzaingoak pertsonak identifikatzeko?

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, jakiteko ea zertan den Espainiako Gizarte Ikasketen Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmen-markoa.

FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS IÑIGO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egindako galdera, jakiteko ea zertan den Espainiako Gizarte Ikasketen Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmen-markoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri

kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak Humanismo y Democracia Fundazioari 2000tik 2005era emaniko dirulaguntzei buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txostenean igorritako dokumentazioa ikusita, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldean jakin dugu hitzarmen marko bat bada goela Espainiako Gizarte eta Osasun Ikasketen Fundazioaren eta Gizarte Ongizate Departamentuko Plangintza Zerbitzuaren artean. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

— Zertan dago aipatu hitzarmen markoa?

– Zein jarduera egin dira hitzarmen marko hori betetzeko?

– Zer gastu ekarri du jarduera horiek egitea?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Iñigo

Galdera, Tuterako Udalak ikastetxe publiko bateko lursailak hartzen dituen aparkaleku bat eraikitzeko asmoari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Tuterako Udalak ikastetxe publiko bateko lursailak hartzen dituen aparkaleku bat eraikitzeko asmoari buruz foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Tuterako Udalak lur azpiko aparkaleku bat eraikitzeko asmoa du. Aparkaleku horrek, zati batean, Elvira España ikastetxe publikoaren lurra hartzen ditu.

Kontseilari jaunak ongi dakienez, 451/1991 Foru Aginduak hezkuntza eginkizun edo zerbitzuei atxikitako ondasunei buruzko txostenak ematera koan jarraitu beharreko prozedura arautu zuen.

Hori guztia dela eta, parlamentari honek honako ahozko galdera egin nahi dio Hezkuntza kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

1.- Ba al daki Hezkuntza Departamentuak Tuterako Udalak aparkaleku bat eraiki nahi duela eta

aparkaleku horren eraikuntzak ikastetxe publiko baten lurrak hartzen dituela?

2.- Baimenik eskatu al dio Tuterako Udalak departamentuari desafekzio hori baimentzeko?

3.- Baimenik eskatu ez bada eta departamentuak proiektuaren berri baldin badu, kontseilariak

asmorik ba al du udalari eskatzeko lege ezarrirako urratsak egin ditzan eta aparkalekua egin aurretik lur horien desafekzioa eska dezan?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: M^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Farmazialarien Elkargoak erregistroak sortzeari eta datuak jasotzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Farmazialarien Elkargoak erregistroak sortzeari eta datuak jasotzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Maiatzaren 1eko 52. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ediktu bat argitaratu zen, zeinaren bidez Nafarroako Farmazialarien Elkargoak iragartzen baitu bi fitxategi sortuko dituela, bata elkargoko kideena eta bestea fakturazioari buruzkoa; azken horretan datu jakin batzuk jasotzea Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoan xedatuaren aurkakoa izan daiteke.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Ezagutzen al da Osasun Departamentuan arestian aipaturiko erregistroak sortuko direla eta haietan zein datu jasoko diren?

2.- Ez al duzue uste fitxategi hori eta bertan jasoko diren datuak ez direla bidezkoak eta Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoaren aurkakoak direla?

3.- Hala baldin bada, zer egin behar duzue?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Castejóngo ziklo konbinatuko zentral termikoaren ingurumen eraginaren adierazpenari jarraikiz egin beharreko ingurumen zaintzako programari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera, Castejóngo ziklo konbinatuko zentral termikoaren ingurumen eraginaren adierazpenari jarraikiz egin beharreko ingurumen zaintzako programari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Sarrera:

2000ko apirilaren 27ko EAOn argitaratu zen "Hidroeléctrica del Cantábrico, Sociedad Anónima", gaur egun Elerebro denak, Castejónen (Nafarroa) sustatu zuen gas naturalerako ziklo konbinatuko 400 MWko zentral termikorako ingurumen eraginaren adierazpena, 1. multzokoa. Hartan, ingurumen zaintzako programa bat exijitzen zen. Hori dela eta, honako galderak egin nahi ditugu:

Ingurumen eraginaren adierazpen horretako 10. idatz-zatian, ingurumen zaintzako programa bat idazteko betebeharra biltzen da, bai obren faserako, bai zentralaren funtzionamendu faserako, hain zuzen ere ingurumen eraginaren azterlanean eta adierazpenaren baldintzetan jasotako eraginen eta ezarritako neurri zuzentzaileen jarraipena eta kontrola egin ahal izateko. Aipatu idatz-zatiko 3. puntuaren haxe esaten da:

"10.3 Zaintzako programari buruzko txostenak. 3.8 baldintzan ezarritakoa (sufre dioxidoei eta nitrogeno oxidoei buruzko hileroko txostenak) galarazi gabe, ingurumen zaintzako programak gutxienez ere ondoko txostenak igortzeko beharra jasoko du:

Sei hilez behin txosten bat eginen da eraikuntza fasean, eta urtean behin zentrala ustiatzen den bitartean, zaintza programa betetzeko egiaz egiten diren jardueri buruz. Adierazpen honetako 10.2 baldintzan berariaz adierazitako puntu guztiak aipatuko dira, eta ondorioen kapitulu bat ere jasoko da, non ebaluatuko baitira adierazpen honetan ezarritako baldintzen betetzea, erabilitako neurri zuzentzaileak eta ingurumen eraginaren azterlanean aurreikusitako hondar eraginetatik gertatu diren desbideratzeak; gainera, kasua bada, behar diren neurri zuzentzaile osagarriak edo aldaketak proposatuko ditu egindako kontrolen aldizkakotasunean.

10.2 artikuluan ezarritakoa aztertuta, honako galderak egin daitezke:

10.2.1 Atmosferarako isuriak zaintzea. Tximini-an instalatutako neurketa jarraituko sistemen bitartez, kutsatzaile bakoitzerako ezarritako isurien mailen betetzea zainduko da, adierazpen honetako 3.3, 3.4 eta 3.5 baldintzetan ezarritakoari jarraituz.

- Ezarrita al daude zentralerako tximinietan neurketa jarraituko sistemak, sufre dioxidoa, nitrogeno oxidoa eta ozonoa neurtzeko?

- Ba al dago sistema informatiko bat denbora errealean Nafarroako kutsadura atmosferikoa zaintzeko sareari ematen dizkiona aipatu substantzia kutsagarrien neurketa jarraituko sistemetan lorturiko datuak?

- Zergatik ez dira datu horiek argitaratzen Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuaren web orrian?

- Aurkezten ari al dira ingurumen zaintzari buruz ingurumen eraginaren adierazpenak exijitzen dituen txostenak? Noiz aurkeztu dira?

- Neurketa horiei buruzko datu jarraituak biltzen al dira hileko eta urteko txostenetan? Ingurumen eraginaren adierazpeneko 3.3.3. idatz-zatian –isuriak ebaluatzeko irizpideak ematen ditu– ezarritakoa betetzen al dute?

- Desbideratzeren bat izan al da? Hala bada, zer neurri zuzentzaile hartu da?

- Berrikusi al dira isurien mugak behin konbusio instalazio handien isuriei buruzko martxoaren

12ko 430/2004 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik?

- Zein potentzian funtzionatu du zentralak lanean hasi zenetik?

- Gasolioa nahiz gasaz bestelako erregairen bat erabili al da osagarri gisa?

- Isuriei buruzko zein ondorio aurkeztu dira?

10.2.2 Gai kutsatzaileek atmosferan izan duten immisioaren balioen zaintza. Adierazpeneko 3.6 baldintzan xedatuaren arabera eginen da.

- Zein dira, zenbat dira eta non daude kutsadura atmosferikoa zaintzeko sarea osatzen duten neurketa-estazioak, dagoeneko existitzen diren 2 zentraletarako? Biak batera ala bereiz aztertu dira? Existitzen al da azterlan hori?

- Baiezkoan, zein datu ematen ditu azterlanak? Betetzen ari al dira ingurumen eraginaren azterlanean aurreikusi eta ingurumen eraginaren adierazpenean jasotako balioak?

- Betetzen ari al dira 1073/2002 Errege Dekretuak ezarritako balioak, sufre dioxidoaren, nitrogeno oxidoen eta nitrogeno dioxidoaren kasuetan, besteak beste, eta 1796/2003 Errege Dekretuak ezarritakoak airean dagoen ozonoaren kasuan? Desbideratzerik badago, zein neurri zuzentzaile jarri dira abian?

- Neurketa estazioak egokiak al dira, kokatuta dauden lekuarengatik, errege dekretu horietan ezarritakoari begira, landarediaren babes balioak neurtzeko?

- Immisio-kutsadura dela-eta, zein ondorio aurkeztu dira?

10.2.3 Eragin akustikoaren zaintza.

- Ba al dago soinuaren immisio maila zaintzeko programarik?

- Zein eremu hartzen du?

- Egin al da immisio mailen aldizkako neurketa-rik? Zein maiztasunarekin? Udaleko zein lekutan?

- Betetzen al dira ingurumen eraginaren azterlanean eta ingurumen eraginaren adierazpenean ezarritako balioak? Zein lege aplikatzen dira?

Desbideratzeen kasuan, zein neurri zuzentzaile jarri dira abian?

- Zentral bakoitzari buruzko azterlana da edo baterako azterlana da, hau da, kutsadura akustiko beste iturriekin batera eginikoa? Zein dira iturri horiek?

- Kutsadura akustikoari buruzko zein ondorio aurkeztu dira?

10.2.4 Uren kalitatea zaintzea.

- Ebro ibaira eginiko isurien azterlanik egiten ari al da? Zein maiztasunarekin?

- Betetzen al dira isuriak baimentzeko ezarritako balioak?

- Desbideratzeen kasuan, zein neurri zuzentzaile jarri dira abian?

- Uren kalitateari buruzko zein ondorio aurkeztu dira?

10.2.5 Hozte sistemaren dorrearen eraginak zaintzea.

- Inguruko gatz lagatzeei dagokienez, laginik hartu al da? Zer distantziako erradioan?

- Hilabeteko g/m²-ko zein balio neurtu dira?

- Landareen gaineko eraginak aztertzen ari al dira? Zein ondorio atera dira?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Iruñeko autobus geltokiaren gaineko hitzarmenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, Iruñeko autobus geltokiaren gaineko hitzarmenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak

aurkeztu ditu, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Etorkizuneko autobus geltokiko obrak exekuzio fasean badaude ere, departamentuaren hitzarmen bat badago diru-kopuru handiak ematen dituen egungo geltokian hobekuntza neurriak ezartzeko; esate baterako, informazio gune informatizatuak eta beste. Ez denez halako konpromisorik bete ez aurtan, ez joan den urtean, honakoa jakin nahi dugu:

1. Zergatik ez dira bete hitzarmenean ezarritako konpromisoak?

2. Nori ordaindu zaizkio ezarritako kopuruak eta zein prestazioren truke?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Nafarroan azken urteotan haur hezkuntzan izan diren aurrematrikulazio eta matrikulazio datuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Nafarroan azken urteotan haur hezkuntzan izan diren aurrematrikulazio eta matrikulazio datuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Haur hezkuntzako eskaintzaren eta eskariaren bilakaera aztertu ahal izateko, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Haur Hezkuntzako (3 urte) aurre-matrikulazioari eta matrikulazioari buruzko datu estatistikoak, 2000/01, 2001/02, 2002/03, 2004/05 eta 2005/06 ikasturteei buruzkoak, Iruñekoak eta Iruñerrikoak eta Nafarroako gainerako lekuetakoak, honakoak zehaztuta: ikastetxearen titularitatea (ikastetxe publikoak eta itunduak), hizkuntza eredua (A, B, D, G, I) eta eskaintako postuen kopurua, aurre-matrikulazioko eskariak (lehen aukera eta behin betiko matrikulazioa bereiziz).

Halaber, 2006/07 ikasturterako eskaintako postuak eta aurre-matrikulaziorako eskariak, lehen aukerakoak, ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Galdera, Iruñeko zeruan aireko armadaren hegazkin batek egindako erakustaldiari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Iruñeko zeruan aireko armadaren hegazkin batek egindako erakustaldiari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluaran eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun dezan.

Joan den maiatzaren 13an, Iruña gainean F-18 hegazkin bat ibili zen hegan, dirudienez, Nafarroa-

ko Unibertsitateak Defentsa Ministerioari eskatutako erakustaldia zela eta.

Espainiako Aire Indarren F-18 hegazkinak, bere erakustaldian, kezka sortu zuen pertsona askorengan, ez bailitzateke hain harrigarria istripu bat eduki eta populazioan ondorio larriak eragitea.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

Lehena. Ba al zuen Nafarroako Gobernuak erakustaldi horren berririk?

Bigarrena. Behar diren baimenak ba al zituen?

Hirugarrena. Polizia indarren arteko koordinaziorik izan al zen?

Laugarrena. Nolako balorazioa egiten du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak horrelako erakustaldiei buruz?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Aralarko erretaula Baluartera eramateari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

2006ko maiatzaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 15. orrialdean akats bat antzeman da. Hona zuzenketa.

Argitaraturiko erantzunaren testua Aralarko erretaula Baluartera eramateari buruzko galderari dagokio –2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta–,

eta ez “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruzkoari –2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta–.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, “Erresuma baten aroa. Antso Handia eta bere leinua” izeneko erakustekari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak “Erresuma baten aroa. Antso Handia eta bere leinua” izeneko erakustekari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du “Erresuma baten Aroa” izeneko erakusketa eta 2006. urtean eginen diren bestelako ekitaldi kulturalak ezagutarazteko asmoz hedapen nazionalako komunikabideetako kazetariei egindako gonbidapenari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilari eta Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Joan den urtarrilaren 18an, Kultura eta Turismo kontseilariak 2006. urteko Nafarroako programazio kulturala aurkeztu zuen Madrilen; programazio horretan Nafarroako Gobernuak antolatutako ekitaldien artean “Erresuma baten Aroa” izeneko erakusketa dago.

Hori dela eta, Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoak Nafarroa bisitatzeko gonbidapena egin zion hedapen nazionalako komunikabideetako hainbat ordezkari, kultura eta turismoarekin lotura zuzena zutenei. Gonbidapena ondoko kazetariei onartu zuten: Pilar de Miguel (Onda Cero), Ramón García (Cope irratiko albistegiak), José María de Juana (Tiempo aldizkariaren eta Radio Nacional de España irratien kolaboratzailea), Sheila Matamoros (Expansión), Ángel Puerta (ABC) eta María Ángeles Sánchez (El País egunkariko bidaia atalaren kolaboratzailea)

“Antso Handia, Erresuma baten Aroa” erakusketa muntatzeko azken orduko lanak zirela eta, kazetarien bisitaldia ez zen bertan behera gelditu baina bai atzeratu zela urtarrilaren 24ko 17:00etatik urtarrilaren 25eko 10:30era. Beraz, erakusketa

25ean aurkeztu zen komunikabideen aurrean, goiz horretako hamabietan egindako inaugurazio ofiziala baino lehen eta inaugurazioa bitartean. Madriletik etorritako kazetariek nahi adina denbora izan zuten erakusketa sakon ezagutzeko.

“Antso Nagusia, Erresuma baten Aroa” erakusketa ikusteko bisitaldia atzeratu zenez, kazetariek aukera izan zuten Nafarroako Artxibo Nagusia bisitatzeko; artxiboa enblematikoa da kokatua dagoen eraikinagatik, baina batez ere, bertan dauden dokumentu-funtsengatik. Bisitaldia Carlos Idoate Artxiboko zuzendariaren gidaritzapean egin zen.

Aldez aurretik antolatuta zegoen bezala, kazetariak urtarrilaren 24ko 18:45etatik aurrera Altzuzan dagoen Oteiza Museoa bisitatu zuten; bertan, irakaslea eta eskultorearen obran aditua den Pedro Manterolaren azalpenak entzun zituzten. Halaber, urtarrilaren 25ean, kazetariak Xabierrera joan ziren, bertako eraikinetan egindako obrak ezagutzera, baita gazteluan paratuta dagoen erakusketa, Juan Jatsukoaren Aretoa eta Schurhammer dokumentu-funtsa ikustera ere. Ricardo Sada Xabierko errektorearekin izandako bileran, V. mendeurrena dela-eta antolatutako egitarau kulturalaren berri izan zuten.

Kazetarien egonaldiak, guztira, 3.836,20 euroko kostua izan du eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoaren aurrekontuen kargura ordaindu da, horrek, besteak beste, Nafarroako irudia gure mugetatik kanpo sustatzeko ardura baitu. Garatu behar diren ekitaldien berri era horretan kazetariei ematea hainbat autonomia erkidegok, udalek eta turismo partzuegok egiten dute.

Gonbidatutako kazetariek gero idatzi eta esan zutenak erakusten du inbertsio hori errentagarria dela; izan ere, Nafarroari irratietan eskaini zitzaizkion minutuak edo Nafarroari buruz idatzi zen guztia publizitate bezala erostea askoz garestiagoa izanen zen. Madrileko kazetariei egindako gonbidapenak izan zuten emaitza ona ikusita, Nafarroako Gobernuak, Bartzelonan berriki egindako prentsaurrean, gonbidapen bera egin die Kataluniako komunikabideetako hainbat kazetari.

Etenaldirik ez zenez izan, baizik eta erakusketa muntatzeko azken lanak zirela-eta ordutegian

izandako atzerapen soil bat, ez dago arrazoirik inolako erantzukizunik eskatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailean

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, 2003, 2004 eta 2005ean erregistratutako patentei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak 2003, 2004 eta 2005ean erregistratutako patentei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du 2003, 2004 eta 2005ean erregistratutako patentei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Nafarroan ez dago patenteen erregistrorik. Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoa da Espainian onorioak dituzten jabetza industrialeko tituluak, asmakuntza patenteak eta baliagarritasun-modeloak tramitatzeko eta emateko erakunde eskudun bakarra. Patentei buruzko martxoaren 20ko 11/1986 Legea (Lege horren bidez eskumena ematen zitzaion Industria Jabegoaren Erregistroari. Geroago izena aldatu eta Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoa izendapena eman zitzaion, gainerako herrialdeekin homologatze aldera).

Asmakuntza bat babesteko modu bat baino gehiago daude Espainian:

– Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoan eskatuta. Kasu horretan, babesak Espainian izanen du eragina. (Nafarroako herritarrek Nafarroan aurkez dezakete eskaera, eta Espainiako Patenteen eta Marken Bulegora igorriko da, han tramitatu dadin.

– Europako Patenteen Bulegoan eskatuta. Kasu horretan, babesak Europako herrialde batzuetan izanen du eragina.

– Patenteen lankidetzaren bidez eskatuta. Kasu horretan, babesak munduko hainbat herrialdetan izan dezake eragina.

Europako Patenteen Bulegoak eta Patenteen lankidetzaren tratatuak jendearen eskuragarri jarri ditu tramitatzeko dituzten eskabideak jasotzen dituzten datu baseak. <http://ep.espacenet.com>
<http://www.wipo.int>

Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoak ere badu datu base bat, eta base horretan jasotzen dira bulego horretan eginiko eskaerak eta beste bide batzuetatik Espainiarako emandakoak. <http://www.oepm.es>

Edozein dela ere erabilitako bidea, guztietan dago isilpeko tramitazio aldi bat. Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoaren kasuan, aldi hori 18 hilabetera artekoa izan daiteke.

Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoaren datu baseak ahalbidetzen du bilaketak egitea eskatzailearen jatorrizko probintziaren arabera; aldiz, beste bi bideetako datu baseek soilik herrialdearen arabera bilaketak egiten uzten dute.

Horiek horrela,

– Nafarroako Gobernuak ez du industria jabe-goko gaiei buruzko berezko daturik; aldiz, partikularrek eskura dituzten tresna berak ditu dauden patenteen jatorria eta mota ezagutzeko.

– Ezinezkoa da ezagutzea azken 18 hilabeteetan eginiko eskabide guztiak.

– Aipatu datu baseen bitartez aurki daitezke Nafarroako (eta beste edozein probintziako) herritarrek eskatutako ia patente guztiak, baina ezin da jakin erabateko ziurtasunez horiek guztiak diren.

Patenteak zein ataletakoak diren jakiteko, bakoitzak kode bat du esleiturik, patenteen nazio-

arteko sailkapenari jarraikiz. Sailkapen hori oso berezia da (patentea teknikako zein ataletakoa den jakitea ahalbidetzen du, baina atal horiek ez datoz bat ohiko hizkuntzan erabiltzen direnekin). Lehenengo maila 8 ataletan bereizita dago:

A atala: bizitzako ohiko beharrianak

B atala: askotariko industria teknikak

C atala: kimika, metalurgia

D sekzioa: ehunak, papera

E sekzioa: eraikuntza finkoak

F sekzioa: mekanika, argikuntza, berokuntza, armagintza, leherketa

G sekzioa: fisika

H sekzioa: argindarra

Aipatutakoak alde batera utzita, honekin batera doaz departamentuak une honetan dituen datuak. Datu horiek 2004. urteari buruzkoak dira, eta 2005eko azaroan argitaratu ziren.

Nafarroako Gobernuak dituen gai horri buruzko datuak Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoak emandakoak dira.

Eskura ditugun azken datuen arabera –2004. urteari buruzkoak–, Nafarroa da 2004an eskaera gehien aurkeztu dituen autonomia erkidegoa, biztanle kopurua kontuan hartuta. Hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitatetik 300 eskabide aurkeztu ziren milioi bat biztanleko.

Eskaera horietatik (300, milioi bat biztanleko; hori baita Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoak erabiltzen duen ratioa), 167 patenteenak izan ziren eta 133, berriz, erabilgarritasun-modeloenak.

Nafarroarekin batera, iaz milioi bat biztanle bakoitzeko patente eta erabilgarritasun-modeloen eskabide gehien aurkeztu dituzten autonomia erkidegoak izan ziren Katalunia (244), Aragoi (203), Valentzia (187), Errioxa (181), Madril (178) eta Euskal Autonomia Erkidegoa (167). Estatuko batez bestekoa da 138 eskabide milioi bat biztanleko (ikus honekin batera doan taula).

Atalka, Nafarroatik eskatutako patente gehienak askotariko industria tekniken eta garraioaren arlokoak dira (% 32,65); bizitzako ohiko beharriaren arlokoak (% 22,45); eraikuntza finkoen arlokoak (% 12,24); mekanika, argikuntza, berokuntza, armagintza eta leherketen arlokoak (% 12,24); fisikaren arlokoak (% 10,20); kimika eta metalurgiaren arlokoak (% 6,12) eta argindarraren arlokoak (% 4,08). Erabilgarritasun-modeloei dagokienez, eskaerak atal hauetatik iritsi dira: bizitzako ohiko beharriaren arlotik (% 41,27); askotariko industria tekniken eta garraioaren arlotik (% 20,63); eraikuntza finkoen arlotik (% 15,88); mekanika, argikuntza, berokuntza, armagintza eta leherketen arlotik (% 11,11); fisikaren arlotik (% 4,76); kimika eta metalurgiaren arlotik (% 3,17) eta zuntza eta paperaren arlotik (% 3,17).

autonomia erkidegoen arabera, biztanle kopuruarekin alderatuta (2004. urtea)

Autonomia erkidegoa	Eskaeren ratioa / milioi bat biztanleko		
	Patenteak	Erabilgarritasun-modeloak	Guztira
Andaluzia	37	28	65
Aragoi	117	86	203
Asturias	47	49	96
Balearrak	50	51	101
Kanariak	33	37	70
Kantabria	45	43	88
Gaztela-Mantxa	28	40	68
Gaztela eta Leon	35	44	79
Katalunia	117	127	244
Valentziako Erkidegoa	85	102	187
Extremadura	30	19	49
Galizia	41	42	83
Madril	102	76	178
Murtzia	34	73	107
Nafarroa	167	133	300
EAE	90	77	167
Errioxa	94	87	181
Ceuta eta Melilla	7	0	7
Espainiako batez bestekoa	70	68	138

eta erabilgarritasun-modeloen emakidak. Banaketa atalka*

Atala	Patenteak	Erabilgarritasun-modeloak
Askotariko industria teknikak; garraioa	% 32,65	% 20,63
Bizitzako ohiko beharrianak	% 22,45	% 41,27
Eraikuntza finakoak	% 12,24	% 15,88
Mekanika; argikuntza; berokuntza; armagintza; leherketa	% 12,24	% 11,11
Fisika	% 10,20	% 4,76
Kimika; metalurgia	% 6,12	% 3,17
Argindarra	% 4,08	
Ehunak; papera		% 3,17

* Iturria: Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Baluartearen sarrera nagusia ele bitan errotulatzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Baluartearen sarrera nagusia ele bitan errotulatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du Baluartearen sarrera nagusia ele bitan

errotulatzeari loturiko alderdi batzuei buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko sarrera nagusiko errotulazioak bete egiten ditu euskara erabiltzeari buruzko foru erkidegoko arauak; horrenbestez, ez da aldatuko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Oteitzako ikastetxe publikoa handitzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Oteitzako ikastetxe publikoa handitzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Oteitzako eskola publikoa handitzeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Oteitzako San Salvador ikastetxe publikoa osatu gabeko eskola unitario bat da.

Oteitzako Udalak planteatu zuen ikasgeletako eta beste gune batzuetako zuzkidurak handitu behar zirela, funtsean herriko jaiotze tasan aurreikusi den hazkundeari begira eta herrian bizitzen jartzen diren sasoiko langileen seme-alabak eskolatzeko beharrei begira.

Oteitzako San Salvador ikastetxe publikoa zabaltzeko obren adjudikaziorako lehiaketa publi-

korik eta geroko prozedura negoziaturik izan ez zenez, lizitatzailerik aurkeztu ez zelako, ezta hasierako aurrekontua lege ezarritako kopuruan handitu ondoren ere, % 10ean hain zuzen, Hezkuntza Departamentuak udalaren enkarguz proiektua egin zuen arkitektoari eskatu zion hura alda zezan, obraren bolumena eta aurrekontua orekatzuz.

Eskola handitzeko plano berriak ikusita, Oteitzako Udalak jakinarazi zuen ezin zela okupatu proposamen berrian aipatzen zen kale zatia, eta 2003ko apirilaren 4an obretarako eman zen lizentzia ez zela kontuan hartu eskolatik hurbil dagoen elizaren kultur ondarea, eta, horrenbestez, lizentzia hori ez zela bidezkoa.

Egoera horretan, Oteitzako Udalak proposatu zuen udal jabetzapeko orube baten ondoan dagoen jabetza pribatuko orube bat hartzea ikastetxe publikoa zabaltzeko. Horrenbestez, orube hori erosteko prozesua abiatu zuen.

Gaur den egunean, Hezkuntza Departamentuak ez daki Oteitzako Udalak proposaturiko orubea erosi duen, eta udal horrek horri buruzko komunikazio ofizialen bat igortzeko zain dago.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 29an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, zabor mota bakoitzaren tratamendu berariazkoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak zabor mota bakoitzaren tratamendu berariazkoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin

agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du gure erkidegoko gaikako zabor-bilketari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Zer datu ditu Nafarroako Gobernuak gure erkidegoan gaikako zabor-bilketaren bidez jasotzen diren zabor mota bakoitzari ematen zaion tratamenduari buruz?

Honakoa da gaikako bilketaren bidez bildutako zabor-zati bakoitzari ematen zaion berriazko tratamendua:

– Papera, kartoia: bildu eta paper fabriketara bidaltzen da paper-orea egin dezaten.

– Beira: birziklatze lanetan ari den enpresa bati igortzen zaio; bertan, kaltzina prestatzen dute. Gero, kaltzina beste lehengai batzuekin Laudioko VIDRALAn urtzen da beira hutsa (botilak) egiteko.

– Zura: ehuneko handi bat paleta gisa berrera-biltzen da; beste zati bat birziklatu egiten da: xehatu egiten da ezpalezko oholak egiteko.

– Burdin metalak: burdinaren fundizioan erabiltzen dira, altzairua egiteko.

– Beste metal batzuk material berrietarako fundizio berezietan erabiltzen dira.

– Plastikoa: garbitze eta xehakatzeko plantetara eramaten dira, berrerabil daitezten: oro har, lau produktutan banatzen dira:

- Dentsitate altuko polietilenoa (HDPE), plastikozko ontziak egiteko.

- Dentsitate baxuko polietilenoa (LDPE) plastikozko poltsak egiteko.

- Polietilen tereftalatoa (PET), forru polarrak egiteko.

- Mixtoa, era guztietako plastikoa estrusio bidez nahastuak, banku, zutoin eta abarrak egiteko erabiltzen diren pieza eta oholak fabrikatzeko.

– Brik ontziak birziklatzean lan egiten duten enpresei bidaltzen zaizkie, kartoizko eta aluminiozko produktu berriak fabrikatzeko.

– Zein da gaikako zabor-bilketaren eta zaborren gaikako tratamenduaren artean dagoen erlazioa, hau da, zein da ezaugarrien eta osaketaren arabera berriaz tratatzen den zaborraren ehunekoa?

Hauxe da Nafarroan birziklaturiko hiri hondakinen ehunekoa: % 17,16.

Kopuru hori nahiko ona da, kontuan hartzen badugu 2004an zehar Nafarroan ia soilik hondakinen zati lehorra birziklatu dela; izan ere, Jurramediko konpostaje plantan ez da jardunik izan obrak direla-eta, eta, horrenbestez, hondakinen zati hezea ezin izan da birziklatu.

Espero izatekoa da biometanizazio eta konpostaje plantak lanean hasten direnean, birziklatutakoaren ehunekoa bi edo hiru aldiz handiagoa izatea.

Honakoak dira ontzien birziklatzeari buruz dauzkagun datu berrienak, materialen arabera sailkatuak:

Materialak	Birziklaturiko kopuruak (Tm-tan)	Kudeaketa sistema integratuei atxikitako kopuruak (Tm-tan)	Birziklatua, 2005ean	2008ko helburuak
Plastikoak	3.159	9.011	% 35,1	% 22,5
Papera eta kartoia	9.998	10.494	% 95,3	% 60,0
Metalak	2.528	4.509	% 56,1	% 50,0
Zura	183	204	% 89,5	% 15,0
Beira	10.578	20.000	% 52,9	% 65
MATERIALAK, GUZTIRA	26.446	44.218	% 59,8	

– Zein neurri proposatzen ditu Nafarroako Gobernuak berreskuratutako materialen kopurua handitzeko?

Berreskuratzen diren materialen kopurua handitzeko honakoa proposatzen ditu Nafarroako Gobernuak:

Europako eta estatuko eta, horrenbestez, foru erkidegoko hondakinei buruzko araudiak ezartzen du ondasunen kudeaketaren erantzukizuna, haien erabilgarritasuna bukatzen denean, hau da, hondakin bihurtzen direnean, ondasun horiek ekoitzi dituztenena dela. Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean, 7. artikuluan, hondakinak sortzen dituzten produktuak merkatuan jartzeak dakartzan betebeharrak ezartzen dira.

Betebehar hori zehaztuta dago berariazko arau batzuetan, esate baterako Ontzi eta ontzien hondakinei buruzko Legean edo fitosanitarioei buruzko foru errege dekretuetan (erabiltzen ez diren ibilgailuak, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak, erabiltzen ez diren pneumatikoak eta abar); guztietan ekoizleei aukera ematen zaie merkaturatzen dituzten salgaiak, erabilgarri izateari uzten diotenean, sorturiko hondakinez arduratzeko betebeharra bete dezaten, hain zuzen ere irabazi asmorik gabeko entitateak eratuz: kudeaketarako sistema integratuak dira, eta haietara atxikirik dau-

denek salgaiak merkaturatzen dituzten autonomia erkidegoetako bakoitzak baimendu behar ditu.

Nafarroako Gobernuak berariazko baldintzak ezartzen ditu kudeaketarako sistema integratuak baimentzeko garaian, hondakinen birziklatzea eta balorizazioa bermatzeko gutxienez ere legez ezarritako mailetaraino edo/eta Nafarroako hondakinen kudeaketa integratuko planean aurreikusitako mailetaraino, eta esparru-hitzarmenak sinatzen ditu kudeaketarako sistema integratu horiekin hondakinen bilketarako sistemak hobeki koordinatzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak finantzatzeko. Kanpaina horiek oinarritzotzat jotzen dira, hondakinen gaikako bilketaren bitartez birziklatzearen helburuak lortzeko, eta Nafarroako manokomunitateekin koordinatuta egiten dira, horiek baitira hondakinak kudeatzen dituztenak.

Azaldu berri ditugun emaitzak ikusita, horri buruzko arauak betetzen ari direla jotzen dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 1ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, garun-perlesia sendatzeko fibrotomiaren teknika aplikatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak garun-perlesia sendatzeko fibrotomiaren teknika aplikatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du garun-perle-

sia sendatzeko fibrotomiaren teknika aplikatzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Zerbitzu-zorroan edozein teknika, teknologia edo osasun-prozedura berriren bat sartzeari dago-kionez, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 21. artikulua honakoa esaten du: Osasun eta Kontsumo Ministerioak, Carlot III.a Osasun Institutuko Teknologien Ebaluaziorako Agentziaren bidez, teknika, teknologia eta prozedura guztiak ebaluatu beharko ditu, beste erakunde ebaluatzaile batzuekin elkarlanean eta autonomia erkidegoek hala proposatuta.

Ebaluazioaren xedea izanen litzateke ondoko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzea:

a) Modu eraginkorrean laguntzea gaixotasunen prebentzioan, diagnosian edo tratamenduan, gai-

xoen bizi-itxaropenari eustean edo hobetzean, nork bere buruaz baliatzean edo minaren eta sufri-menduaren deuseztatzean edo gutxitzean.

b) Gaur egun dauden beste aukera batzuen aldean, frogatzeko moduko hobekuntza bat ekartzea segurtasun, eraginkortasun, eragingarritasun, efizientzian edo erabilgarritasunean.

c) Lege indardunek ezarritako baldintzak betetzea, sendagai edo produktu sanitarioen erabilera biltzen duten kasuetan.

Finantziazio publikoaren menpeko zerbitzu-zorroan sartu ahalko dira soilik aipatu baldintzak betetzen dituzten teknikak, teknologiak edo prozedurak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Vianako Printzea Espezialitate Zentroko Oftalmologia Zerbitzuko itxaronzerrendei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Vianako Printzea Espezialitate Zentroko Oftalmologia Zerbitzuko itxaronzerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Vianako Printzea Espezialitate Zentroko Oftalmologia Zerbitzuko itxaronzerrendei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, oftalmologia kontsultan dagoen itxaronzerrendari buruzko zenbait xehetasun eman behar dugu.

Familia-medikuak hala aginduta, gaixo bati oftalmologian lehentasunezko kontsulta egin

behar diotenean, 10 egun baino lehenago jartzen diote hitzordua.

Oftalmologian egin beharreko azterketei dagokienez, esan behar dugu lehentasuna ematen diegula oftalmologoaren iritziz epe laburrean ikusi beharrekoak direnei.

Azterketei dagokienez, 12.456 gaixo daude itxaronzerrendan, eta zerbitzuan badute ahalmenik hileko 4.428 gaixo artatzeko.

Itxaronzerrenda hori murrizteko egindakoa hauxe da:

– Bideko Ama Birjina Ospitalean oftalmologo bat kontratatzea, 2006ko urtarrilaren 16an lanean hasi zena.

– Nafarroako Ospitaleko oftalmologia zerbitzuan, arratsaldetan, ohiz kanpoko jarduketa-programak egitea, 2006ko otsailaren 13an hasi zirenak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, itxaronzerrendak arintzearen Ubarmin klinikan kirofanoak egokitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak itxaronzerrendak arintzearen Ubarmin klinikan kirofanoak egokitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du itxaronzerrendak arintzearen Ubarmin klinikan kirofanoak egokitzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2002. urtetik, Ubarmin klinikan kirofano bat dago, arratsaldeko ordutegian, astelehenetik ostegunera, udan eta opor garaietan izan ezik.

Joan den urtarriletik, beste kirofano bat dago ordutegi berarekin, hau da, arratsaldez eta astelehenetik ostegunera.

Bestalde, azken data horretatik gaur egun arte, 116 gaixo bideratu dira itundutako ospitale batera (Nafarroako Klinika Unibertsitarioa) ebakuntza egitera; hori egin da gehienez sei hilabete itxaron behar dela ezartzen duen bermea erabiliz (irailaren 29ko 138/1998 Foru Agindua).

2006ko otsailaren 27an, Ubarmin klinikan 1.802 gaixo daude ebakuntza baten zain; horietako bakar batek ere ez darama sei hilabete baino gehiago itxaronzerrendan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Arginaritzen itxitako zaborteziaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Arginaritzen itxitako zaborteziaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du joan

den udan Argiñaritz herriaren ondoan gertatutako suteari buruz. Galdera horren hirugarren puntuari dagokionez, hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Aipatu sute horretan, suak ez zituen ukitu antzinako zaborteziaren lurra, ez zen egon aparteko arriskurik sua itzaltzen ari zirenentzat, eta ez zen behin ere beharrezkoa izan sua itzaltzeko baliabideak, era nabarmenean, desbideratzea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du joan den udan Argiñaritz herriaren ondoan gertatutako sutearekin zerikusia duten zenbait gairi buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Galdera horren 1., 2., 4. eta 5. puntuei dagokienez, hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1.- Zein da aipatu zaborteziaren egungo egoera?

Zabortezi hori 1975. urtetik 1992. urtera bitartean jardunean egon zen, Gongorako hondakinen tratamendurako zentroa ireki zen arte. 1994. urtean itxi zen eta funtsean honako obra hauek egin ziren:

– Zaborteziaren inguruan barreiatuak zeuden material guztiak bildu ziren.

– Lurzorua birmoldatu zen euri uraren hustuketa errazteko.

– Tximiniak eraiki ziren hartzidurak sortutako gasak hustutzeko.

– Lixibiatuak hartzeko drainatzeak eraiki eta lixibiatu horiek idoi batean bildu ziren.

– Ondoko lursailetatik isuritako urak desbideratzeko areka perimetralak eraiki ziren.

– Gainazala polietilenoazko estalki batekin iragazgaitu zen eta alboko ezpondetan hainbat lur geruza paratu ziren landare-estaldura ezartzeko eta euri uraren sartzera eragozteko lodiera nahikoa zutenak.

– Zabortezi osoan drainatze-sareak eta euri urak biltzeko arekak eraiki ziren.

– Hesi perimetral bat egin zen sartu behar ez diren pertsonen sarbidea galarazteko.

2.- Zer kontrol egiten ditu foru gobernua zabortezi horren segurtasuna eta haren ingurumen kontrola bermatzeko?

Zaborteziaren titularra Iruñerriko Mankomunitatea da; beraz, berari dagozkio itxi ondorengo zaintza lanak eta instalazioaren eta lekuaren mantentze-lanak. Hala ere, aldizkako bisitak egiten dira zaborteziaren egoera eta hura itxi ondoren eraikitako azpiegituren egoera zein diren ikusteko. Oro har, egoera onean daudela egiaztatu dugu, alde batetik iragandako denborak ez dituelako kaltetu

eta beste aldetik ekaitzek eta euri zaparradek hondatutakoa konpondu delako. Horrez gain, landutakoaren urteko jarraipena egiten da.

4.- Ba al dago zabortezi horretan gas-poltsen edo bestelakoen arriskurik, Argiñaritzko bizilagunenei edo ingurumenari kaltea egin diezaiekeenik?

Ez dago aukera handiegirik zaborteziaren barruan gas-poltsak sortzeko ondoko arrazoiengatik:

– Hondakinen masara sartzen den ur kopuru eskasak galarazten du gasaren osaketa; hori dela eta, mikrobioen aktibitatea oso murrizta da.

– Gasak hustutzeko bi sare motek zeharkatzen dute hondakinen masa: lehenengoa osatzen dute zabortezi jardunean ari zenean hondakin geruza bakoitzeko eraiki ziren drainatze horizontalek, eta bigarrena, osa zitezkeen gasak hustutzeko zabortezi itxi eta gero eraiki ziren tximinia bertikalek.

Aldizka, tximinietatik ateratako gasak neurtzen dira, eta neurketa horiek arestian esandakoa berresten dute, ezinezkoa baita gas horrekin zuzi bat piztea.

5.- Zein neurri hartu dituzte edo/eta hartu behar dituzte administrazio publikoek zabortezi horren segurtasuna eta ingurumen kontrola bermatzeko?

Itxitako zabortezi kontrolatzeko administrazio publikoek hartutako neurriak hauexek dira:

a) Instalazioaren jabe den Iruñerriko Mankomunitateak hondakinen masaren jalkitzea kontrolatzen du, hondatutako azpiegiturak konpontzen ditu, landaredia zaintzen du, eta lixibatuen idoiari pilatutakoa kentzen du.

b) Ebroko Ur Konfederazioak isurketak baimentzen ditu honelako baldintzetan: uztailean, abuztuan eta irailean debekatuta dago isurtzea, eta beste hiletan isurketak mugatuta daude eguneko emariaren arabera, osoko bolumenaren arabera eta isuriantzaren dagoen kontaminatzaileen kopuruaren arabera.

c) Nafarroako Gobernuak hau guztia betetzen den ikuskatzen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Andrés Burguete Torres

Galdera, Departamentuetan I+G+Ba enpresa sarean sustatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Departamentuetan I+G+Ba enpresa sarean sustatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Hezkuntza kontseilariaren erantzuna

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat egin du Nafarroako Gobernuako departamentuek legegintzaldiaren hasieratik industria bilbean I+G+Ba sustatzeko egindakoari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Alde batetik Hezkuntza Departamentuak bultzatutako doktore ikertzaileen prestakuntzak, eta bestetik prestakuntza eta ikerketa eta garapena laguntzeko planaren bidez gure unibertsitatetan bultzatutako ikerketa taldeek, oinarrizko ikerketa sustatzen dute; horrek ahalbidetzen du enpresek industria-teknologiari aplikatutako ikerketak egiten segitzea. Legegintzaldi honetan, prestakuntza eta ikerketa eta garapena laguntzeko planak 8.769.375 euroko zuzkidura izan du.

Hezkuntza Departamentuak eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak berariazko lankidetzaren hitzarmen bat egin dute ikerketa zentroek errazago kontrata ditzaten ikertzaileak eta teknologian aditu diren langileak. Hitzarmen horrek I-3 Programa du izena, eta Nafarroan ikertzaileen hainbat behin-behineko kontratu finkatzeko bide emanen du.

2005ean bost egin dira eta gehienez zortzi egin zitezkeen. Hiru lanpostu horiek hutsik gelditu dira ez zegoelako hautagai gehiagorik.

Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF) izeneko azpiegituretarako laguntzak (komunikazio sareak, ekipamendu zientifiko eta teknikoak eta zentroak sortzea eta zabaltzea) emateko azken hiru deialdietan, 2003tik 2005era egindakoetan, Hezkuntza Departamentuak proposatu eta lortu du Nafarroari 4.530.136 euroko laguntza eman diezaioten.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakaskuntza eta ikerketa proiektuak finantzatzeko, industri bilbean eragin zuzena edo zeharkakoa dutenak, 9.596.800 euro erabili ditu Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera hau egin du: Zein urrats eman ditu Nafarroako Gobernuak, bere departamentuen bitartez (Hezkuntza, Komunikazio, Industria, Kultura eta Turismo, Osasun, Ingurumen, Nekazaritza), legegintzaldiaren hasieratik I+G+B-a sustatzeko gure foru erkidegoko industria bilbean? Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Ondoren zehazten da departamentua egiten ari dena:

– Nekazaritza Ikerketen Institutu Nazionalak eta autonomia erkidegoek osatutako Nekazaritza-ko Ikerketarako Batzorde Koordinatzailean parte hartzen du.

– Nekazaritzako baliabide eta teknologien azpiprograma nazionalari ikerketa-proiektuak aurkezten dizkio.

– Nekazaritza Departamentuak dirua gehitzen dio nazioarteko eta nazio mailako deialdietan lortutako finantzaketari.

– Nekazaritzako elikagaien industriarekin eta plan teknologikoaren bioteknologiarekin zerikusia duten gaietan Industria Departamentuarekin lankidetzan aritzen da.

– INIA-CCAA izeneko programan parte hartzen du; programa horren bidez, autonomia erkidegoek proposatutako ikerketa proiektuak garatzeko doktoreak kontratatzen dira. Finantzaketa partekatua da.

– Hezkuntza Departamentuaren prestakuntza eta ikerketa eta garapena (I+G) laguntzeko plana ebaluatzen egin den departamentuen arteko ebaluazio-batzordean parte hartzen du.

– Departamentuaren unitateek (EVENA-Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa, Nae-kazaritzako Baliabideak Ebaluatzeko Atala) eta departamentuari atxikirik dauden sozietate publikoek (ITG Agrícola, ITG Ganadero, Riesgos de Navarra, ICAN eta NASERSA) garatutako lan ildoak sustatzen eta finantzatzen ditu.

– Emaizten zabalkundea, argitalpenak, hitzaldiak, departamentuaren web orria eta sozietateen web orria.

– Prestakuntza ikastaroak laguntzen eta finantzatzen ditu: ITG Prestakuntza

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusia Andrés Eciolaza Carballo

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du gobernuko departamentuek industria bilbean I+G+Ba sustatzeko egindakoari buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Erantzuna dagokio Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren jarduketaremuari; izan ere, Nafarroako Gobernuaren barruan departamentu horrek du eskumena I+G+B arloan.

Galderak hartzen duen epemugan, legegintzaldiaren hasieratik alegia, bi plan teknologiko aplikatu dira: I. Plan Teknologikoaren bukaera (2000-2003) eta II. Plan Teknologikoaren lehenengo biurtekoa (2004-2007). Beraz, erantzuna oinarriko bi atal horietan artikulatuko da.

Eskatutako datuak eman baino lehen, komeni da gogoratzea plan teknologikoek izaera estrategikoa dutela, izan ere, arlo honetarako Nafarroako Gobernuaren lan ildoak ezartzen dute. Ez da ahaz-

tu behar berrikuntzak duen garrantzia Nafarroako industria arlorako eta, oro har, Nafarroako ekonomiarako.

2000-2003 urteetako Plan Teknologikoa sortu zen enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko eta enplegua sustatzeko jarduera teknologikoa kualitatiboki eta kuantitatiboki handitzearen bidez. Emaizak positibotzat har daitezke, besteak beste, ondoko gauzengatik:

- I. Plan Teknologikoak 2.000 lagun baino gehiago mobilizatu zituen.

- I. Plan Teknologikoak ikerketa, hobekuntza eta berrikuntzarako 3.100 enpresa-proiektu baino gehiago jaso ditu.

- Enpresek eragindako inbertsioa Nafarroako Gobernuak egindako gastuaren hiru halako izan da: administrazioak 107,4 milioi euro inbertitu zituen, eta enpresek, ordea, 315,6 milioi euro inbertitu zituzten.

Hauek izan ziren jarduketa ildo nagusiak: banakako analisi-programak, proiektuak laguntzea, sentsibilizazioa, lankidetzak-proiektuak, proiektu sektorial eta tematikoak, teknikari kualifikatuak saritzea eta berrikuntzarako kudeaketan prestatzea.

Beste aldetik, Nafarroako II. Plan Teknologikoa (2004-2007) aukeratu da erkidegoko aurrerapen teknologikoa errazten duten proiektuak finkatu eta suspertzeko.

II. Plan Teknologikoaren aurrekontua 141 milioi eurokoa da, eta aurreko programarena 120,2 milioi erokoa zen; beraz, aurrekontua % 17,3 handitu da. Plan teknologiko berri horren ardatzak hauexek dira: berrikuntza eta ezagutza, informazioaren gizartea, garapen iraunkorra eta herritarren bizikaltatea hobetzea.

Une honetan, II. Plan Teknologikoaren lehenengo bi urteei buruzko emaitzak eskaintzeko moduan gaude eta honako ondorio hauek atera daitezke:

	Proiektu kopurua	Enpresen inbertsioak (euroak, milioitan)
2000-2003 epean (4 urte)	448	278,8
2004-2005 epean (2 urte)	325	222,6

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, bigarren plana aplikatu den bi urtetako enpresa-jarduera eta lehenengo planaren datu orokorrak, 4 urtekoak alegia, nahiko antzekoak dira. Lehenengo planaren aplikazioaren bi urtetako batez bestekoa eginda, 224 proiektu inguru ateratzen dira eta enpresen inbertsioa 140 milioi eurokoa da; hau da, 2004-2005 epean lortutakoa baino askoz gutxiago.

Hala ere, datu horiek gorabehera, I+G+B arloan Nafarroako Gobernuak egindako politikaren emaitza onak eta enpresa eta unibertsitate sektoreek berrikuntzarekin duten konpromisoa islatzen dituen adierazlerik argiena hau da: Nafarroa, lehenbiziko aldiz, I+G+B arloan gehien gastatu duen autonomia erkidegoa da; horrela azaldu da Estatistikako Institutu Nazionalak argitara eman dituen eta eskura dauden azken datuetan, 2004. urteari dagozkionetan.

2004ko ikerketa eta garapenerako gastua BPGaren gainean

1. Nafarroa	% 1,90
2. Madril	% 1,76
3. EAE	% 1,54
Estatuko batezbestekoa	% 1,07

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

2003ko ikerketa eta garapenerako gastua BPGaren gainean

1. Madril	% 1,81
2. EAE	% 1,42
3. Nafarroa	% 1,41
Estatuko batezbestekoa	% 1,10

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

2004ko (erabilgarri dugun azken datua) datuak, autonomia erkidegoak alderatuz.

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalak

	Barneko gastuak 2004 (euroak, milakotan)	%, erregioen BPGaren gainekoa
Nafarroa	256.947	1,90
Madril	2.447.465	1,76
EAE	778.443	1,54
Katalunia	2.106.870	1,44
ESPAINIA	8.945.761	1,07
Gaztela eta Leon	423.081	0,95
Valentziako Erkidegoa	731.940	0,94
Galizia	366.290	0,86
Andaluzia	882.913	0,8
Aragoi	180.045	0,73
Murtzia	138.267	0,7
Errioxa	41.173	0,69
Asturias	116.252	0,67
Kanariak	199.285	0,61
Kantabria	46.158	0,45
Gaztela-Mantxa	116.589	0,43
Extremadura	56.947	0,41
Balearrak	54.687	0,28
Ceuta eta Melilla	2.409	0,19

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontselaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, larrialdiak abiarazteko Positron sistemari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak larrialdiak abiarazteko Positron sistemari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du 2005eko abenduan eta 2006ko urtarrilean POSITRON sistemak izan duen funtzionamenduari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

2005ean, SOS-Nafarroak duen larrialdiak artatzeko zentroaren sistema informatikoak modu egonkorrean funtzionatu du eta %99,9ko erabilgarritasun baloreak lortu ditu.

Nolanahi ere, informatikako eta komunikazioetako sistema guztiek bezala, gorabeherak izaten ditu, eta horiek sistema berari edo konektaturik dagoen kanpoko sistemei egotzi dakizkieke.

Gorabehera horiek larrialdietan eta herritarrei emandako laguntzaren kalitatean eragina izan ez dezaten, sistema era sendoan diseinatua dago eta elementu kritikoak modu erredundantean jarrita daude. Hala eta guztiz ere, akatsak izanez gero, zerbitzuaren maila kudeatzen duen talde batek azkar konpontzen ditu. Talde hori aurrez jarritako estandarren arabera aritzen da. Horrez gain, monitorizazio sistema aurreratu bat dauka, aka-

tsak izateko dauden arriskuen berri ematen dituzten alertak dituen eta balizko arazoak sortu baino lehen konpontzen dituen.

2005eko abenduan eta 2006ko urtarrilean sistemari egotzi ahal zaizkion 13 gorabehera izan ditugu eta beste 4 kanpoko sistemen erruz gertatu dira; epe horretan erabilgarritasun haztatua % 99,58 izan da eta % 99,76 bakarrik sistema kritikoak kontuan izanik.

Bi gorabehera aipagarrienak 2005eko abenduaren 2an eta 2006ko urtarrilaren 23an gertatu ziren. Lehenengoa gertatu zen Positron sistemaren softwarean izandako akats batengatik, eta sei minutu iraun zuen. Bigarrena gertatu zen ONO enpresak hornitzen dituen telefonia-zirkuituak nahi gabe moztu zirelako, bai bere lotura nagusian Iruña eta Zaragozaren artean, bai bigarren mailako loturan Iruña eta Logroñoren artean.

Gorabehera horiek ez zuten eraginik izan herritarrei emandako arretan; izan ere, dagoeneko aipatu dugunez, sistemak badiu dispositibo erredundanteak behar bezalako arreta emateko akatsak izan arren. Sistemaren diseinu horri esker, 112 zenbakira egindako deiak uneoro artatu ziren baita akatsak gertatu ziren uneetan ere. Neurri handi batean, operadore eta gelaburuen profesionaltasunari esker ez zen koordinazio arazorik izan akatsek iraun zuten bitartean.

Herritarrek ez dute inolako kexarik aurkeztu, behar bezalako arreta ez dutela jaso esateko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Nafarroako poliziari eta segurtasun publikoari buruzko foru lege proiektuak taxutzeko aurreikuspeni buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Nafarroako poliziari eta segurtasun publikoari buruzko foru lege proiektuak taxutzeko aurreikuspeni buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroako poliziari eta segurtasun publikoari buruzko foru lege proiektuak taxutzeko aurreikuspeni buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak, iragan otsailaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektua onestea. Aipatu foru lege proiektua Nafarroako Parlamentura igorri da.

Bestalde, aipatu proiektua prestatzeko egin diren tramiteek agerian utzi dute komenigarria dela gaur egungo Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea berrikustea; hori dela eta, horretarako beharrezkoak diren lanak amaitzen badira eta bidezkotzat jotzen bada, foru lege proiektua legegintzaldi honen barruan tramitatuko da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Alvaro de Marichalar jaunari Japoniara joateko emanen dion dirulaguntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Alvaro de Marichalar jaunari Japoniara joateko emanen dion dirulaguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Álvaro de Marichalar jaunarekin zerikusia duten

zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Kultura eta Turismo Departamentuak ez du aurreikusita inolako babes-akordiorik egitea Álvaro de Marichalar jaunarekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón